

2021-09-10 / 702. ZENBAKIA / 17. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



**Malou Henriksen
eta Julen Gabirondo
Gipuzkoako Segura Sail
txapelketan
aritu dira** / 11



**"Bezeroaren astea"
eta "Outlet kalean"
ekimenak,
datozen egunetan
Andoainean** / 6



Minbizia hizpide

Ainara Albizu urnietarrak elkarriketa mamitsua eskaini dio Aiurri / 2-3

AHAZTUAK EMAKUMEAK BERTAN ZIREN ETA BERTAN ARI DIRA

Irailaren 10etik 25era bitartean
Bastero Kulturguneko erakusketa aretoan

ANDOAINO GUDUA

1837/89/14

ERAKUSKETA

2

Sarrera doan
Ordulegia:
Astelchenetik ostiralera: 18:30 - 20:00
Larunbatetik: 10:30 - 13:30 / 18:00 - 20:30
Bisitagidatuak
Izena emateko: 943 303 540 - basteroataria@andoain.eus

Babesle:



ANDOAINO UDALA
Hezkuntza eta Kultura
Batzordea

Antolatzaile:



EUZKO LEHEN MAILAKO
GUDUAREN ERAKUSKETAK
Batzordea

Ondarearen Europako Jarduera
European Heritage Days





Andoni Urbistondo URNIETA

Ainara Albizuk minbizia dauka (40 urte, Urnieta). Bizitzak eman dion ostikoaren aurka ari da borrokatzen, “ekaitza pasatzen”, berak esan nahiago duen moduan. Martxoaz geroztik kimioterapia-ko sei saio hartu ditu, eta laster bukatuko ditu erradioterapiakoak. Dena ondo badoa, jarraipen analitikak bost urtez, “baina ziurrenik beldurra, bizi guztirako”. Minbizia ezagututa jabetu omen da jendarteak itxurari zenbateko garrantzia ematen dion. Berekoiz an omen da, behartuta sentitu du bere burua. Bi amets ditu. Udaberrian Adarramendira igotzea, eta Xare, 10 urteko alaba hazten ikustea. Honatx testigantza gordin honen bilduma.

Nor da Ainara Albizu?

Urnietarra, ezaguna herriko taxi gidariaren alaba naizelako, eta urtetan herriko plazan egon zen taberna bakarreko alaba eta langile. Urte batzuk atzera Trebiñura joan nintzen bizitzera. Sei hilabete atzera endometriko minbizia diagnostikatu zidaten, eta hor ari naiz, borrokan. Borrokatzeko modu bat da sare sozialetan nire esperientzia kontatzea.

Erraza gertatu zaizu zure berri ematea?

Hasieran zurrumurruak, edo egia ez ziren gauzak zabaldu ez zitezen hasi nintzen kontatzen gauzak. Informazioa nire ahotik jasotzea. Ondoren niretzako terapia modukoa zela jabetu nintzen, nire sentimenduak azaltzeko. Informatu egiten nuen, baina ni neu ere konbentzitzeko, neraman borrokan indartzeko. Mezua, haxe: prozesuan sinesten dut. **Gaixotasunaren nondik norakoak kontatzeko moduan?**

Umetoki barneko gailua (DIU) erabiltzen nuen, eta ez neukan hilekorik. Gailua kendu nuen gero, eta hilekoa bueltatuta jabetu nintzen ezberdina zela, hemorragia batzuk izan nituen. Beldurtu egin nintzen, ze familian egon izan dira aurrekariak, arazo ginekologikoak. Ginekologoa-
rengana joan nintzen, Txagorritxun, Gasteizen. Tratua bikaina izan zen, oso azkarra, eskerrak eman nahi nizkioke Osakidetza-ri. Diagnostikoa azkarra izan zen: endometriko minbizia. Umetokia babesten duen geruza da endometrioa. 1B eskalan zegoen minbizia, medikuen arabera arrisku gutxien daukana, eta lokalizatua, tratatzeko errazena.

“Minbizia ez da borroka kontua, ekaitza pasa beharra dago”

AINARA ALBIZU MINBIZIA GAINDITZEKO TRATAMENDUA JASOTZEN ARI DA

Endometriko minbizia du, eta gorriak pasa ditu kimioa hartzen; heriotza sumatu omen du, “urrutitik”, baina tunelaren argia ikusten hasi denaren esperantzarekin dago



Kimioterapiako sei saio hartu ditu, eta laster bukatuko ditu erradioterapiakoak. AIURRI

Ebakuntza egin zidaten azkar. Ama izan nahi ote nuen galdetu zidaten, aurrena, eta baietz esan nien, ari nintzela saiatzen, bigarrenez (Xare 10 urteko alaba dauka Ainarak). Umetokia kendu behar zidaten, ebakuntzan, eta minbizia 1B eskalan zegoenez, berriro ama izateko aukera eman zidaten, umea eduki eta berehala tratamendua hasteko. Ezetz esan nien, lehenbailehen sendatu nahi nuen, eta hori lortzeko berriro ama izateari uko egin behar banion egingo niola. Bizitza berri bat emateko aukera neukan, baina nirea arriskuan jartzeko beldurra ere, prozesuan minbizia garatzen bazen. Erabakia bikoteari ezer komentatu gabe hartu nuen, eta umetokia kendu zidaten. Dena ondo atera zela esan zidaten. 10 egunetara azterketa egin zidaten, eta hor zerbait aurkitu zidaten. Mikroskopioarekin umetokia sabelera lotzen duen zuntzean bi milimetroko zelula kantzerigenoa antzeman zidaten. Protokoloa kimioterapia eta erradioterapia zen, tratamendu guztia.

Nola jasotzen da halako berri bat?

Pentsatu nuen lehenengo gauza: ilea eroriko zait? Baietz esan zidan medikuak, alaba konturatu egingo da. Ondoren familiari esan beharreko trantzea, ze denok uste genuen umetokia kendu eta gero bukatu egingo zela asuntoa. Zelula horrekin 3B eskalara pasa zen nire egoera, 1B egoeratik.

Lau eskala daude denera. Lau garren eskala metastasiaren atarian egotea da. Galderak sortu zitzaizkidan. Asko sufrutuko dut? Garaiz antzeman dugu? Baina ez dizute erantzuten, nahia-
go dute garbi ez hitz egitea. Medikuntza nuklear batean proba egiten dizute, Pet Tac izenekoa, eta han zelula txarrek distira egiten dute. Medikuek esan zidan garbia izan zela froga. Frogaz frogaz, txarrenean jartzen nintzen, baina baikor. Nerea ahizpari esaten nion (elkarrizketa guztian egon da Ainararen ondoan), ‘Nerea, lasai, gaizki ateratzen bada ere tratamendua emango didate eta lasai’. Minbizia hitza, gogorra da. Izeba bat ere hil zitzaigun minbiziak jota, eta minbizia daukana ondokoen begietara koitadua, edo gizajo baten parekoa da. Nik, baina, ez dut penarik eman nahi inoren aurrean.

Zer egin zenuen pronostikoa jasota?

Minbiziari neurria hartzen saiatu. Esan nahi dut, ez naiz ni gaitzaren aurka borrokatu behar duena, medikuak baizik. Berekoia izan behar duzu, norekin egon nahi duzun aztertu, esango dizunak kalte egin ez diezazun. Erlijio kutsuko jendea da, batez ere, nahiz eta laguntzeko asmoz egiten duten. Erruki mezuak jasotzen dira, batez ere, baina ez dute onik egiten (erradioterapiako bigarren txanda hasteko deia jaso du, bat-batean, eta malko batzuk isuri ditu Ainarak).

Erradioterapia hartzen hasi zara. Kimioterapia baino samurragoa omen. Hala da?

Gorputz bakoitza mundu bat da, ezberdin erantzuten du eta ezin jakin. Kimioterapia pozoia da, Supermanen kryptonita bezalakoa. Kimioterapiako sei saio jaso ditut, martxoan hasita, 21 egunez behin saio bat. Hartzen hasi aurretik esaten dizkizute albo kalteak: ilearena, bota gurea, gose falta, eragin neurologikoak... Hasi aurretik indartsu sentitzen nintzen. ‘Sei saio dira, eutsiko diot, ez du nirekin bukatuko’, esaten nion nire buruari.

Eta kimioterapia hartzen hasi zinen. Nola joan zen?

Pirinioetako mendi bat igotzea bezala hartu nuen, niretzat mendi horiek igotzea beti erronka handia izan baita, nire pisuagatik. Garbi neukan tratamendua hasi behar nuela. Medikuari, erdaraz, ‘saca la artilleria pesada’, esan nion. Buruz-eta sendo egon behar nuen, borroka ez

galtzeko. Eta perspektibaz jokatu, berekoi izan. Lagunek ni ikusteko deitu, eta ezetz esan beharra, une horretan kalte egingo zidalako. Erruki eta mezu oldarkorrei beldurra nien. Nire ingurua mugatu dut asko. Hori egiten dudan lehen aldia da, jendetasuna izan dudalako betidanik.

Nolakoak dira saioak?

Zazpi ordukoak, ohe batean etzanda. Kortikoideak sartzan dizkizute aurrena, gero Taxol izeneko osagai bat zainetatik, hiru orduz, eta horrek zainak nola erretzen dizkizun nabaritzen duzu. Ondoren carboplatino osagaia. Saioa bukatuta mozkorra banengo bezala ateratzen nintzen, baina oinazetik gabe. Lehenengo saiora bikotearekin joan nintzen, beste guztietara bakarrik. Saioa bukatuta etxera, normal. Hurrengo bi egunak egurrean zaudete, haserre bezala, mundu guztia izorratzen. Hirugarren eguna hanketako mina, giharretakoa... Hanka azpitan milaka orratz izango bazenitu bezala. Onkologoak esan zidan, egunero ibiltzeko, eta pentsatu nuen, onkologoari ez diote kimiorik eman! Jateko komeriak nituen, batzuetan patata egosiak eta arrautzak bakarrik, eta olibak. Ez dakit zergatik. Laugarren egunean, negar batean. Ezina. Nire gelan sartu eta irau. Heriotzarekin hitz egiten hasten zara, alaba bakarrik geratuko dela pentsatzen, pentsamendu txar-txarrak etengabe. Hiltzen banaiz ere, bizitza oparoa eduki dudala... Aurre egiten hasten zaren arte. Hori da borroka. Lehen krisia Albert Camus-en audio liburu batekin pasa nuen, Jon Jauregik aholkatuta. Bosgarren egunean argia ikusten hasten zara.

Eta sei saio...

Bai. Lehen saioa kemen, grina hori apaltzen joaten da, eta kimioaren kontrako borroka hori bestela ikusten duzu. Ez da borroka egin behar, ekaitza pasatzen utzi baizik. Borrokak erre egiten zaitu psikologikoki. Jaiki, bazkaldu, ibili... akitu egiten zaitu. Eta oraindik bost saio. Bigarrenean beldur apur batekin zoaz, hiltzegira joango bazina bezala. Ilea erortzen hasten zaizu bigarren saioa hasterako, eta kentzea erabaki nuen. Irudiaren gizartean bizi gara, eta ilea galtzeari sekulako garrantzia ematen diogu. Kalte neurologikoei, aldiz, bate-re ez. Jendeak ilea erortzen zaitzula bakarrik ikusten du. Iteorde



Nerea ahizparekin batera, argazkian. AIURRI

batek 1.500 euro balio du! Itxurak arduratzen gaitu, beste ezeren gainetik. Txapel bat eramateko aholkatu didate, eta nik ezetz. Zergatik eraman behar dut?

Hirugarren saioarekin Covid-aren txertoa ere hartu zenuen.

Bai, defentsak indartsuen egun horretan dituzulako. Ikaragarria izan zen. Etsitzear egon nintzen. Oso gogorra izan zen, denetan gogorrena. Laugarren saioa ez zidatela emango ere pentsatu nuen, jota nengoelako, lata bat irekitzeko indarrik gabe, 100 metro oinez egiteko adorerik gabe. Trebiñun ondo eraman dut, herri txiki bat, lasaitasuna, alaba ere Urnietan ikastolan... Trebiñun bikotearen eta honen amaren laguntza izan dut, eta eskerrak eman nahi nizkieke bihotzez. Ez zen erraza izan, ze bera zaintzeko gai ez zarela pentsatzen duzu, beti borrokan, eta aldendu egiten zara. Urnietan aita, nire familia dauka, eta hemen nirekin baino hobeto egongo zen. Bi hilabeteko tartean behin ikusi dut alaba, pentsa.

Eta azken saioa ere hartu zenuen.

Bai, baina bitxia da, kimioa bukatzeari beldurra hartu nion, hartzen duzun bitartean badakizulako ez dela ezer txarra hazten ari zure gorputzean, eta kimioa bukatzen duzunean, ba agian bai. Kontu psikologikoa da. Ni akabatzen ari dira, baina akabatzen ari den gauza horrek mantentzen nau osasuntsu. Sentsazio kuriosoa da. Bikoteak galdetu zidan: 'zer nahi duzu, bizitza osoa kimioa hartzen egon, ala?'. Aitortu behar dut nire plangintza sei saio hartzea zela, eta medikuak lau hartuta kitto egiteko

nien medikuei erradioterapiarekin ahalik eta azkarren hasteko. Ez dut ezer berezirik sentitu, egia esan. Sumatzen dut medikuak kontu handiarekin dabiltzala, organoak eta ez kaltetzeko. Oinazetik gabe nabil, momentuz, eta gustura. Neke pixka bat, akaso, baina kimioarena ere izan liteke. Erradioterapia egunero hartzen da, printzipioz 25 saio, eta brakiterapiako beste hiru. Alaba ikastolara bueltatuko da, eta lehenbailehen bukatu nahi dut prozesua, normaltasunera itzuli. Teorian albo kalteak samurragoak dira erradioterapiarekin, baina beti ez da hala gertatzen. Buruak esaten dit txarre-na pasatu dela, baina ez dut soberako konfiantzarik nahi. Erradioterapia bukatuta bost urtez jarraipena egingo didate, hiru hilabetez behin hasieran, sei hilero ondoren, eta urtero azkena. Gaitza bera desagertu liteke, kontrolak eta analitikak, baina beldurra bizitza osoan zure ondoan dagoela esango nuke.

Ze egunekin amesten duzu?

Zoriontsu zerk egin nauen hausnartu dut asko gaizki egon naizen azken hilabeteetan, zer lortu nahi dudan etorkizunean. Zerk egin nauen zoriontsu, zer berreskuratu nahi dudan. Konforme nintzateke udaberrian Adarramen dira igoko banintz. Eta gero Aizkorri. Mendian zoriontsu nintzen, eta hori sentitu nahi dut berriro. Hori eta alaba hazten ikusteko aukera edukitzea. Zarauzko pertsona batekin harremana eduki dut prozesuan, eta hark esan zidan, zer eskatzen zion minbizari: 10 urte, semea hazten ikusteko. Nik ere hori nahi nuke. Nik orain arte nahiko disfrutatua dudala iruditzen zait: parrandak, bidaiak... Bizi izan naizenaren sentsazioa daukat, bizitza aberatsa eduki dudala esango nuke.

Ze mezu emango zenieke minbizia dutenei? Jendarteari?

Materialista samarrak garela esango nuke... Mundu honetatik martxa egiterakoan zurekin zer eramaten duzun hausnartzea eskatuko nuke. Zer eramango duzu zurekin? Zure etxea? zure autoa? Zure dirua? 40 urte ditut, eta ez daukat gauza materialik. Ez dirurik, ez etxerik. Bizipenak baino ez. Baina zoriontsua naiz. Itxuraren gizartean bizi gara.

Negarrez hasi da Ainara, eta Nerea ahizpak hartu du hitza. Ainarak minbizia zeukala esa-

teko dei egin zionean lanean zegoela gogoratu du: "Kolpe latza. Lanean nengoen. Inoiz ez zaudete horrelako berriak hartzeko prest. Halakoak ondoko etxean bakarrik gertatzen direla uste duzu, etortzen den arte. Ama babestu genuen, Ainarak berak ere gu babestu gaitu asko. Deitu diot egun askotan, eta Ainarak erantzun ez, jakinda kalte egingo zigula. Gero bera Trebiñun dago. Hortxe dago, baina ordubetera. Distantzia hori oso handia izan da etxekoentzat".

Zuk, Ainara, nola bizi izan duzu distantzia hori?

Niretzat ona izan da, isolatu egin naiz. Amarentzat ez da ona izan. Ni kontsulta guztietara bakarrik joan naiz, baina Donostiara etorri izan naizenetan, medikura, amari nirekin etortzeko esan diot. Berekoia izan naiz, aitortzen dut, baina ama, ama da.

Sare sozialetan ari zara zure bizipenak agertzen. Zergatik?

Hasieran zurrumurru eta gezur-rrak saiheste aldera hasi nintzen. Bigarrenez, maite nauen jendeak nire berri eduki zezan, jendea ez baita ausartzen galdetzer. Nire argazkiak sareratu ditudan lehen aldia izan da. Eta terapia moduan, barrua hustutzeko. Jende asko dago bere bizipenak kontatzeko, eta zenbaitzuk ba influencer edo halakoak izateko asmotan, protagonismoa bilatzeko. Elkarrizketa bakarra emango dut, publikoki, Aiurri-ri, eta herriko aldizkaria delako. Hainbat lagunek laguntza eskaini didate sare sozialetan egindako testigantzen ondoren, nik espero gabe. Koadrila beti hor egon da. Sare sozialek nahiko sona txarra dute, baina gauza onak ere ekartzen dituzte. Nik gauza gogorrek kontatu ditut, egun txarrak gordin-gordin azaldu ditut sare sozialetan. Minbizia ez da irabazi edo galtzen den borroka bat, hiltzen bazara da gaixotasun bat izan duzulako, baina ez ez duzulako borrokarik egin. Ez da borroka kontua, ez dago nire esku. Heriotza gertu sumatu duzu uneren batean?

Beldur handia nion, eta begietara begiratu diot. Urrutitik, otso batean irudikatu dut, otso beltz bat. Begi horikoa, niri begira. Begiratua eutsi diot. Hortik etorri dira orain arte bizitako lau hamarkaden hausnarketa. Nahiko bizi izan naiz? Bizitzari zukua atera, eta bihar baino hobe, gaur. Horixe nire mezua.

"BELDUR HANDIA NION HERIOTZARI, ETA BEGIETARA BEGIRATU DIOT"

AINARA ALBIZU



Sektoreak aurkezpen ekitaldia egin zuen astearte goizean, Donostiako Trinitate enparantzan. AIURRI

Uztaren garaia heldu da sagastietara

Sagar urte oparoa da 2021ekoa eta sagastirik gehienek sagar asko dute eta oso osasuntsua. Horixe iragarri zuten Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako ordezkariak, asteartean Donostian egin zuten aurkezpen ekitaldian

Mikel Arberas, Irune Alfonso DONOSTIA Eguraldiak, noski, izan du eraginik. Aurtengo udako eguraldiek zertxobait atzeratu dute heldutasun garaia sagasti askotan, baina beste zenbait sagastitan iazko erritmora doa heldutasun maila. Sagar motak, zonaldeak, heldutasun puntuak eta sagardogileen gustuek zehaztuko dute

bilketa garai zehatza, baina irailetik azarora bilduta izango da bertako sagar guztia.

Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak eta Sagardoa Route ekimenak antolatutako aurkezpen ekitaldian adierazi zuten, "iazko uztatik txikia izaki, aurtengo handia izatea aurreikusitakoa eta uztak handia dugu.

Loraldi bete betekoa izan zuten sagasti gehienek udaberrian eta sagar asko hartu dute sagarrondoek. Sagar oso osasuntsua da aurtengoa, poliki-poliki heltzen joan dena, udarako eguraldiak medio. Iaz baino 0,5 alkohol gradu gutxiago emateko traza du eta barietate gehienak asko eman dute".

Horrek sagardogileari lan egiteko aukera paregabea ematen dio, gustuko sagar motetatik sagarra aukeran izateak.

Bost milioi kilo sagar pasa biltzea aurreikusten da

Euskal Sagardora bideratutako sagastietan, urtez urte, geroz eta sagar gehiago ari da izaten bertako sagastietan, dauden sagastiak zaindu eta sagasti berriak aldatu eta produkzioan sartu ahala. Sagarzale eta sagardotegien arteko akordioak lotzen ari da Euskal Sagardoa Jatorri Deitura, luzerako elkarlana baita bertako produkzioa handitu, sektoreak indartu, produktuak posizionatu eta kalitatea bermatzeko modurik egokiena.

Deialdi berezia egin zieten sagargileei, Trinitate enparantzako agerraldian: "Sagarra lantzeko interesa badute, aldeztu aurretik sagardogile eta Jatorri Deiturarekin harremanetan jartzeko, akordioak bilatu eta sagarraren gestioa denborarekin lotzen joateko. Sagasti berri horiek azken orduan mugitzeak arazoak sortu bailitzake, behin bilketa eta kupeltegien lana planifikatuta dagoenean".

Bertako sagarraren ekoizpena handitzea helburu

Urtero bezala, datu zehatzak ematearen zale dira. Eta garapena ikusteko interesgarria da: "Euskal Sagardoa barruan 250 sagargile daude, gaur egun. Eta 480 hektarea inguru sagasti. Sagar hau guztia Jatorri Deiturako 48 sagardotegietara joaten da, Euskal Sagardoa ekoizteko. Sagasti hauetan zahar eta berriak daude eta beste 110 hektarea dira produkzioan sartu berriak eta datozen urteetan produkzioan sartuko direnak. Sagasti berririk gehien, Gipuzkoako lurraldean jarri da, Foru Aldundiak emandako laguntzaren pean gehienak. Bide horretan, sagasti berriak jartzen saiatzeko ahalegin eta konpromisoak ere aurrera darrai. Sagar sektorea profesionalizatzen jarraitzea ere helburua da, kalitatezko uztak orekatuak lortzeko bidean.

EPE HURBILEKO HELBURUA SAGAR SEKTOREA PROFESIONALIZATZEN JARRAITZEA DA



Tolarea martxan jarri zuten Donostiako ekitaldian. AIURRI

2021 uztako lehen muztioa dastatzeko aukera izan zen

Bi sagar dastatzeko aukera izan zen, zentzumenekin jolas eginez: Aritza sagarra eta Geza-miña

Iruñe Alfonso DONOSTIA

Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak 115 sagar mota ditu onartuak eta hauetako 24 dira gehien erabiltzen direnak, gezak eta garratzak (gaziak). Horien nahasketak egokiak emango dizkio sagardoari bere ezaugarriak eta sagardotegi bakoitzak bilatzen du bere gustuko nahasketa eta sagardoa. Hauek dira Euskal Sagardoan erabiltzen diren 24 sagar mota nagusiak:

Garratzak-gaziak:

Errezila.
Goikoetxe.
Urtebihaundi.
Frantzes.
Bost kantoit.
Haritza.
Azpeiti sagarra.
Manttoni.
Ibarra.

Gezak:

Gezamiña.
Urdin.

Mozolua.
Patzulua.
Mikatz.
Udare marroi.
Txorisagarra.

Gazi-gezak:

Moko.
Limoi.
Merabi.
Mokote.
Urtebete.
Urtebitxiki.
Saltxi.

Pauso handiak eman dira azken urteetan kalitatearen alde eta baita geroz eta bertako sagar gehiago izatearen alde ere. Izan ere, sektoreak eta administrazioak helburu bat garbi zehaztu zuten Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren sorreran: 15 urteren buruan %100 bertako sagar hutsez egitea hemengo sagardo guztia; hau da, Euskal Sagardoa seilupekoa izatea ekoiztuko den guztia.



Unai Agirre. AIURRI

"Hogeita lau sagar barietate erabiltzen dira gehienbat"

UNAI AGIRRE

EUSKAL SAGARDOA
Donostiako ekitaldiko protagonista sagarra zen

Iruñe Alfonso DONOSTIA

"Bi sagar mota ekarri ditugu hona. Hala ere, 24 sagar mota dira nagusiki euskal sagardoan ditugunak, guztira, 115 dira, baina, 24 hauek dira nagusiki erabiltzen direnak. Batzaz beste oraindik berdeantza daude eta heldutasun puntua hemendik 15 egunetara edo hiru astera izango da. Sagarmota desberdinak desberdin heltzen dira; batzuk oraintxe heltzen ari direnak dira, beste batzuk, esan bezala, hemendik aste batzuetara helduko dira, eta besteak urri erditik aurrera. Gaur sagar geza, eta bestea, gazia edo garratza dastatzeko aukera izango dugu".

"Sagardogintzaren sektorean ilusioa antzematen da"

AMAIA ZUBELDIA ARRATIBEL SAGARDOA ROUTE
Sagardogintzako sektorean turismo teknikaria

Iruñe Alfonso DONOSTIA

11 urte dira jada sagardoaren sektorean lanean ari dela. Turismo ikasketak egin zituen bere garaian, eta sagardo sektorean murgildu zen turismo teknikari bezala: "Bertako sagarraren alde, bertako produktuaren alde egitea da nire lana, eta horretaz gain, turistikoki balorean jartzea. Elkartean, ekitaldien bitartez, eta promoziozko ekintzen bitartez egiten dugu bertako sagarraren aldeko apustu sendoa".

Zein da aurtengo uztaren balorazioa?

Edozein sagastiri erreparauz gero bor-bor daude, sagar asko dagoelako. Hori da lehenengo balorazioa, sagar asko eta osasuntsua dagoela. Gutxi gora behera, datuetan sartuta kalkulatu da 5 milioi kilo inguru sagar, bertako sagar bilduko dela aurtengoa. Horrek esan nahi du, iaz baino hiru aldiz gehiago bilduko dela; orduan, kopuru aldetik, bertako sagar asko dago.

Nola aurreikusten da aurtengo sagardo denboraldia?

Egia esan ilusioarekin ari gara lanean, sektorea ilusioarekin ikusten da. Aurtengoa ezin izan dugu txotxa egin, baina, sagardoa beste modu batera eraman dugu mahaira. Sagardotegietan joko da egitea da gauza; jendea aukera eman momentuko sagardoa, uztako sagardoa probatzeko, eta gero, botilan ere aurreko urteko sagardo hori dastatzeko aukera ere eman. Jendea nahiko kontentu gelditu da, eta gure asmoa martxa horretan jarraitzea



Amaia Zubeldia Arratibel. AIURRI

da. Gero, pandemiak aukera ematen duen momentuan, txotxarekin hastea sagardoa hori dastatzen, batez ere, gustatzen delako eta tradizioari heltzeko. **Turismoari begira nola joan da uda?** Oso oparoa izan da. Uste genuena baino bisitari gehiago etorri da sagardotegietara, eta gainera, bisitari horiek geroz eta gehiago eskatzen dute ekintza bereziak egitea, hau da; dastaketak, bisita gidatuak sagardogile diren familiak ezagutuz, baserriak ezagutuz, Urumea errekan zehar kanoarekin lotutako aktibitatearen bat egin sagardoaren garrantziaz hitz egiten eta ondoren sagardotegira bazkaltzera joan... Horregatik, ikusten ari garena da bertako bezeroak gain, eta txotx garaiaz gain, urte osoan ere aukera polita ari dela irekitzen sagardogintzat beste bezero mota batekin.

JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!



- Jaitsi Telegram aplikazioa.
- Sartu, **Aiurri Urnieta** edo **Aiurri Andoain** kanalean.
- Batu zaitez eta jaso eguneko albiste nagusiak.

**ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Merkataritza sustatzeko ekimen bikoitza

Salkin elkarteak "Bezeroaren astea" antolatu du, datorren astelehenean hasi eta aste osoan zehar luzatuko dena. Horrez gain, "Outlet kalean" ekimenaren edizio berria izango dela iragarri du



"Outlet kalean" egitasmoaren bidez, prezio onean eros daitezke produktu ugari. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Tokiko merkataritza sustatzeko Salkinek irailean antolatzen dituen ekimenez gozatzeko aukera izango da, aurtengoan ere. Alde batetik, "Bezeroaren astea" iragarri du. Irailaren 13an hasi eta 19ra bitarte luzatuko da. Erosketa egiteak saria dakar, kasu gehienetan. 2 eta 5 euroko

sariak izango dira, saridunari tokian bertan kontsumitzeko aukera emango diotenak. Astearen baitan "Outlet kalean" ekimena iragarri dute, irailaren 17rako. Produktu ugari prezio onean erosteko aukera dago. Eguraldiak lagunduz gero, tokiko merkataritza sustatzeko ekimen arrakastatsua izan ohi

da. Parte hartze handia iragarri du Salkin elkarteak. Hauexek izango dira: Amabi, Gloss, Durazno, Alice, Mantegi mertzeria, Ormendi kirolak, Pottoko, Maindi optika, Xare oinetakoak, Iturbe oinetakoak, Gorostidi burdindegia, Gamer, Izeia, Pepi lentzeria, Tejidos Cisneros eta Gonzalez Sastre.

Andoaingo Guduari buruzko erakusketa, ostiralean hasita

Irekiera-ekitaldia arratsaldeko 18:00tan izango da, Basteroko Erakusketa Gelan

Erredakzioa ANDOAIN

Iraila iristearekin batera, Andoainen karlisten garaia gogora ekartzen duen herri antzezpena antolatzen zuen Larramendi Bazkunak. Partaide asko biltzen zituen, eta jendetza erakarri.

Pandemia betean, ordea, ezinezkoa da horrelakorik antolatzea. Aurtengoan, eskuak gurutzatu beharrean, erakusketa antolatzea erabaki dute. Eta erakusketaren begiradari erreparatzeak merezi du, emakumea eta gudua azter-

gai baitago "Ahaztuak emakumeak. Bertan ziren eta bertan ari dira" izena duen erakusketan. Ostiral honetan 18:00tan hasita, irekiera ekitaldia egingo dute. Eta irailaren 25a bitarte erakusketa ikusteko aukera izango da. Bisitaldi gidatuak antolatu dituzte irailaren 18rako eta 25erako, eta interesa duenak Bastero Kulturgunearekin harremanetan jarri behar du. Telefonoz, 943 303 540 zenbakira deituta. Edo emaila idatzita basteroataria@andoain.eus posta elektronikora.



EH Bilduko Udal taldea, Bilgunean egindako bileran. EHB

"Lehentasunei dagokionez urrats gutxi eman da aurrera"

Andoaingo EH Bilduk, ikasturte hasierarekin bat eginez, oharra igorri du hedabideetara

Erredakzioa ANDOAIN

EH Bilduko udal taldeak ikasturte berriari ekin dio, Andoni Alvarez Lete zerrendaburua euren artean delarik. Izan ere, aitatasun baimenarekin izan da aurreko hilabeteetan. Ikasturte hasierarekin batera udal agintaldiaren bigarren zatia martxan jarri da eta horren inguruko irakurketa egin zuen Alvarezrek: "Agintaldiaren lehen bi urteak agortu dira, eta 2019ko ekainean aurrera eraman beharreko lehentasunen gainean urrats gutxi eman direnez, horiei bultzada emateko ordua da. Ez gara nekatuko, aurreko agintaldian markatutako bidetik jarraitu beharra dago: Ur hoditeria berritzen, saneamenduak bideratzen, kiroldegiko bigarren pista eraikitzeke prozesua martxan jarri behar da, eta udal liburutegiaren proiektua martxan jarri

behar da. Hauek dira inbertsio estrategikoak, eta ez dugu ezer aurreratu azken bi urte hauetan".

Bestalde, N-1 eta zarataren harira, "Gipuzkoako Foru Aldundiak uztailan egindako aurkezpenak zapore gazia utzi du gudan. Gai honi irtenbidea emateko udalak paper garrantzitsua jokatu beharko du. Udal herriaren eta herritarren interesak defendatu beharko ditu, alderdikeriak alboratuz.

Udal langileen egoera bideratzea lehentasunekoa dela adierazi du: "Bi urtez martxan zegoen lanpostuen balorazioa behar bezala amaitzeko borondaterik ez da egon. Orain ezin da gehiago atzeratu eta lehenbailehen heldu behar zaio gaiari. Funtzionario interinoen egoerarekin batera, ikasturte honetan konpondu beharreko gai bat izango da".



Basteroko erakusketa aretoa, uztailan eginiko erakusketan. AIURRI



Ostegunean Goikoplazan elkartu ziren, Andoaingo Asanblada Feministak deituta. AIURRI

Erasoen aurkako elkarretaratzea

Andoaingo Asanblada Feministak aurreko astean eraso sexista bat baino gehiago izan direla salatu du, eta ostegunean elkarretaratzea deitu zuen. Lehen erasoaren harira, Andoaingo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere gertaera gaitzetsi dute

Erredakzioa ANDOAIN

Irailaren 6an Andoaingo Kaleberrian emakumeenganako eraso bat izan zen, eta hori dela eta Andoaingo Asanblada Feministak agerraldia deitu zuen: "Berriro ere emakumeen aurkako indarkeria salatu nahi dugu. Emakumeok egunetik egunera pairatzen dugun gaitza gizarte heteropatriarkal eta matxista baten ondorioa da".

Zabaldutako zurrumurruak ezberdinak izanik, gertaera testuinguruan jartzeko ahalegina egin zuen erredakzioak, Aiurri.eus webgunean. Eraso astelehenean gertatu zen, arratsaldeko 17:00ak aldera Kaleberria auzoko etxebizitza batean. Ertzaintza eta Udaltzaingoa bertaratu ziren Kaleberriara, eta berehala zabaltu ziren mezuak sare sozialetan. Ertzaintzak adierazi duenez, emakumea bere bikoteak fisikoki erasotu zuen; gauzak horrela, Ertzaintzaren hainbat auto eta anbulantzia bertaratu ziren. Erasotzailea

atxilotu eta Tolosako Epaitegira eramane zuten; biktima, berriz, artatua izan zen jasandako erasoak medio. Zurrumurruak zurrumurru, Ertzaintzak zabaldutako informazioaren arabera, emakumea ez zen labanarekin lepoan erasotua izan, eta onik da.

Ordu gutxira, Asanblada Feministak herrian beste bi eraso izan zirela salatu zuen.

Udalaren gaitzespena

Udalak irailaren 6ko eraso gaitzetsi eta erasotuari elkartasuna adierazi zion. Adierazpenean honakoa adierazi zuen: "Eraso mota horiek indarkeria matxistaren eta gure gizartean oraindik nagusi diren genero-desberdintasuneko jarrearen adierazpen arbuigarriena baino ez dira, eta Andoaingo Udala horren aurka dago, modu irmoan".



Ordezkarri politiko guztiek bat egin zuten adierazpenarekin. AIURRI



Asteleheneko agerraldia, Goikoplazan. AIURRI

Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileen protesta ekitaldiak

Uztaileko elkarreratze eta protesten ondotik euren egoera ez da hobetu, eta grebara jotzea erabaki dute

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo etxeko laguntza zerbitzuko langileak aste osoan zehar mobilizatzen ari dira, Goikoplazan. Izan ere, uztailean egindako elkarreratze eta protesten ondotik, euren egoera ez da hobetu, eta grebara jotzea erabaki dute. ELAk salatu duenez, langileen hitzarmen kolektiboa 2020ko abenduan amaitu zen. Andoaingo etxeko laguntza-zerbitzua Udala titularraren duen zerbitzu publikoa da.

Zerbitzu hori pribatizatuta dago eta Eulen Servicios Sociosanitarios enpresak kudeatzen du. Bertan 25 langile inguru ari dira lanean. ELAk hobekuntzak onartzeko eskatu dio enpresari, baina uko egin dio. Eta enpresarekin zein Udalarekin izandako bilerak emaitzik gabe bukatu dira. Gauzak horrela, langileak Udaletxe aurrean elkartzen ari dira lan baldintza duinak aldarrikatzeko eta Udalarari irtenbide bat bilatzeko eskatzeko.

Hastear da Jabekuntza eskolaren edizio berria

Ostiral honetan egingo du aurkezpena Udaleko Berdintasun sailak

Erredakzioa ANDOAIN

Ahalduntzea da jabekuntza eskolaren helburu nagusia, emakumeak gizarte bizitzan parte hartze aktiboa izan dezan. Andoaingo urteak dira Jabekuntza Eskola martxan jarri dela, eta bere bitartez hainbat ikastaro eta tailerretan parte hartzeko aukera dago. Ikastaroak doakoak izango dira eta jardunbide ezberdinak hartzen ditu bere baitan. Beharbada ezagunenak batukada feminista da, baina badira beste batzuk ere. Hala nola, autodefentsa feminista edota jatorri aniztako emakumeen elkargune multikulturala.

Tailer horiek martxan jartzearekin batera, tertulia feministak antolatzen dira.

Berdintasun sailak xehetasun guztiak ostiral honetako agerraldian eskainiko ditu. Era berean, datozen egunetan udalaren ikastaroak jasotzen dituen eskuorria etxeko etxe banatuko du

**UDAZKENEKO
ESKAINITZA ETXETZ
ETXE BANATUKO DU
UDALAK, DATOZEN
EGUNETAN**



Buruntzaldeko euskaltegien zein Udaletako euskara zerbitzuen ordezkariak Urnietan, Lurdes Iriondo parkean. AIURRI

Euskara ikasi, aukerak biderkatu

Ikasturte zaila igaro dute Buruntzaldeko euskaltegiek. Alabaina, pandemia ez da oztopo izan jardunari eusteko: buru-belarri aritu dira lanean eta kalitatezko hezkuntza bermatu diete herritarrei. Indartsu sentitzen dira 2021-2022 ikasturteari begira.

Alba Cabrera Jauregi ESKUALDEA
Nork bere arrazoiak ditu udako oporraldien biharamunean euskaltegira hurreratzeko. Aspaldi logelako mesanotxean gordetako hizkuntza berreskuratzeko helburua dute hainbatek; seme-alabei etxeko lanekin laguntzeko desira, beste zenbait. Ama hizkuntzan sakonago trebatzeko premia ase nahian dabilenik ere izaten da, baita titulua eskuratu nahi duenik ere. Bada, euskara klaseak jasotzeko arrazoi adina aukera bermatzen ditu Buruntzaldeak: orotara, zortzi euskaltegi daude eskualdean; bina Lasarte-Orian nahiz Hernanin; bana, berriz, Andoainen, Astigarragan, Urnietan eta Usurbilen.

Hala, astelehenetik ostiralera, goizez zein arratsalde, eskaintza zabala dute ikasleek euskara maila guztietan, bai aurrez aurreko klaseetan, bai autoikas-

kuntzaren bidez. Hori ez ezik, gelatik kanpo ere euskaraz trebatzeko makina bat baliabide ipintzen dituzte euskaltegiek herritarren eskura.

Bestalde, diruz laguntzen dute Buruntzaldeko udalek euskara ikasteko prozesua: herri batetik bestera kopurua aldakorra izan arren, guztiek bermatzen dute babes ekonomikoa, zenbait kasutan ikastaroa doako bihurtzeraino. Horrez gain, HABEk laguntzak ematen ditu, baldin eta erakundeak ezarritako maila edota baliokidea eskuratzen bada.

Oztopoak, aukera bihurtuta

Maldatsua izan zen iragan urte amaiera eskualdeko euskaltegiarentzat pandemia dela-eta. Ikasturtea apur bat kezkatuta hasi zutela du gogoan Aize Otañok, Hernaniko AEK-ko irakasleak; azken hilabeteak “bereziak” be-

zain “arraroak” izan dira erakundearentzat. Harekin bat dator Lorendiñe Usarralde Lasarte-Oriako Udal Euskaltegiko zuzendaria, ezjakin ekin baitzioten euskara klaseak emateari: “Beldurra sentitzen genuen, oro har, gizartean ere izua zelako nagusi”.

Joan den ikasturtean, orotara, 771 herritarrek hartu zuten euskara ikasteko konpromisoa, musukoen nahiz gel hidroalkoholikoen artean. Egoeraren konplexutasunarekin ohartuta, goitik behera berrantolatu zituzten euskaltegiak, pandemia-ri aurre egiteko osasun-neurriak errespetatzeko xedez: ikasgelen aireztapena, distantzia soziala, garbitasuna...

Ikasgelako girotik harago, askotariko eragozpenak izan dituzte euskaltegiek beren egunerokoa gauzatzeko, besteak beste, eskola-orduetatik kanpo antola-

tutako hitzorduak egiteko. AEK-ko kideek, gainera, ondo baino hobeto oroitu dute ikasturtea, koronabirusak galarazi egin baitu Korrika antolatzea. “Gurean utzitako hutsune ekonomikoa nabaria da”, dio Otañok, “baina gizartean du eragina euskararen aldeko aldarrikapena egun horietan kalera atera ez izanak”.

Zailtasunak zailtasun, egokitzapen lanei dagokionez, “lan txukuna” egin dutelakoan dago Usarralde, “baliagarria izan da ikusteko zein baliabide ditugun eskura”. Beren gaitasuna frogan jarrita, buru-belarri aritu dira lanean irakasle guztiak. Hala ere, goraiatzekoa da, zuzendararen aburuz, ikasleek izandako jarrera, erantzun ona eman baitiote asteroko martxari. Usarralderekin bat etorrira, lana ondo egiteko gai direla agerian gelditu da Otañorentzat: “Berrasmatzen, moldatzen jakin dugu”.

Ikasleen azalean

Euskararekin harreman estuagoa izateko borondatez eman zuten izena euskaltegian Elaia Fadriquek, Elena Jimenezek eta Asier Erkiziak. B2 mailan aritu dira lehen biak; C2 mailan, azkena. Ezbairik gabe erronkari modu arrakastatsuan erantzun diote; euskara ikasi dute, batetik; eta, bestetik, askotariko jendea eza-gutzeko aukera izan dute.

Gainera, euskal komunitatera gerturatzeko abagune ederra izan da ikastaroa hiru ikasleentzat. Esaterako, Erkizia, egun, segurtasunez mintzo da euskaraz, alegia, arauak ikasita, “beldurrik gabe” jarduten da “edonon eta edonorekin, egoera formaletan edo lagun artean”. Gauza bera gertatu zaio Jimenezi, mihia zorrozten lagundu baitio euskaltegiak: “Garapen handia nabaritu dut; oso pozik nago. Hizkuntzari dagokionez, oztopoak gainditzin laguntzen du euskaltegiak”.

Halaber, ados dago hirukotea: “Hizkuntza bati bihotza jarri behar zaio, sentimendua jarri behar diozu ikasketa-prozesuari”; eta horixe lortu dute euskaltegiari esker, hizkuntzaz harago joaten, herriko harremanak sareten, ahalduz eta aukerak biderkatzen. Ateak zabalik dituzte, horrenbestez, euskaltegiek, euskara ikasi ez ezik, beste ohi-tura eta mundu ikuskera aberasgarriak ere ezagutu nahi dituzten herritarrentzat.



Baldintzak eta laguntzak

Andoain

Baldintzak: Andoainen erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85. Laguntzak: matrikularen %85 ikasle guztiei; familia ugariko edo errenta txikikoei, %100. Autoikaskuntza, %100. 675 eurora arteko muga.

Astigarraga

Baldintzak: Astigarragan erroldatuta egotea. Asistentzia minimoa: %85. Laguntzak: Matrikularen %75 guztiei, 600 euroko mugarekin. Familia ugarikoei, errenta txikikoei, eta abar: matrikularen %100.

Hernani

Baldintzak: Hernanin erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85. Laguntzak: Matrikularen %70. Langabeei eta ikasleei, %90. Finantzazio aukera desberdinak.

Lasarte-Oria

Baldintzak: Lasarte-Orian erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85. Laguntzak: Ohiko dirulaguntzak. %85.

Urnietan

Baldintzak: Urnietan erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %80. Laguntzak: matrikularen %85, 600 euroko mugarekin. Langabeei, matrikularen %100.

Usurbil

Baldintzak: Gutxieneko asistentzia: %80. Laguntzak: guztiei, matrikularen %100. 600 eurora arteko muga.

*Buruntzaldeko udalek %70 - %100
artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!*

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**
Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2
943 591 704
andoain@aek.eus

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea, 17 behe
607 625 233
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi, 11
943 557 801 - 607 592 864
Zilegi eskola: 663 043 314
hernani@aek.eus

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia, 43 behe
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia, 48
607 610 687
astigarraga@aek.eus

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren gainean)
943 361 621
euskaltegia@lasarte-oria.eus

Hernaniko Udal Euskaltegia

Karobieta, 63
(anbulatorio zaharra)
943 331 896
euskaltegi@hernani.eus

URNIETA

Urnietako AEK
Errekalde kalea, 1 (tarteko oina)
662 338 747
urnieta@aek.eus



POSTONTZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Vueltako notak

10 Primoz Roglic. Jaun eta jabe. Ez du arrakalarik erakutsi, eta lehen astean Enric Mas-ek mina egin diezaiokeela bazirudien ere, hanka batekin irabazi du Vuelta. Egun txarrik gabe, arriskatuz, erasokor, lau etapa garaipen eta pare bat gehiago lortzeko aukerarekin. Hirugarrenez irabazi du jarraian Vuelta, oso oso konpletoa, Pogacarren ondoren munduko ziklistarik onena.

9 Bahrain taldea eta Jack Haig. Ikaragarri ibili dira. Haig podiumean, etapa bikaina Carusorekin Velefiqueen, Gino Mader gazte onena Bernalen aurretik. Lana egin behar zenean lana, eta nola! Eraso egin behar zenean eraso, eta tinko. Neil Stephens autoan, merituaren zati bat berarentzat. Zoritxarrez, Mikel Landa ez da nota honetan sartzen, okerragoa merezi du.

8 INEOS taldea. Ikuskizuna eman dute, podiumik edota garaipenik lortu gabe ere. Erasokor beti Bernal, bere erasoak ahalbideratu zuen Vueltako bukaera mitikoenetakoan etapa zoragarria ikustea. Ondo Adam Yates ere, bukaerara arte etsi gabe, indartsuena ez zela jakitun. Bernal eta Yates bezalako jendea behar da tropelean.

7 Magnus Cort Nielsen. Zaldi puska. Hiru etapa, bigarren erlojupekoa, eta beste etaparen bat irabazteko zorian. Vueltako txirrindulari borrokalaria izendatu dute, eta merezita. Merituaren parte bat Juanma Garate kirol zuzendari irundarrarentzat, Education First taldeko piezak maisuki mugitzen asmatu duelako.

6 Michael Storer. Tropeleko harribitxi berria. Erlojupekoan iaioa zela jakina zen, baina nola ibili den Vueltan mendiko etapetan... Mendiko maillota ere irabazi du, eta Gamoniteirura bidean sekulako balentria lortzeaz izan zen. Nota on hau DSM taldeari ere eman dakioke, Romain Bardet-ekin beste etapa bat eta presentzia handia lasterketan.

5 Enric Mas. Podiuma bigarrenz Vueltan, eta bigarrenz bigarren. Korritu dituen azken lau itzulietan lau Top 5 lortu du, eta horrek meritua dauka. Kirol emaitza horiek lortzeko modua atsegin duzun edo ez, beste eztabaida bat da. Lerroon egileari, ez da misterioa, ez zaio gustatzen bere korritzeko modua, seguroa, amarrategia. Movistar taldeak ere izango du zerikusia jarrera horretan. Eraso serio bakarra egin du Vuelta osoan, Velefiqueen. Bakarra. Ziklistak berak zer eta nola saltzen duen ere aintzat hartu behar da. Mas-ek, atzo, Vuelta bukatuta, Roglic-ek bukaera pikoetan kentzen dizkion segundo apur horiek ez galtzeko lana egin behar duela esan zuen. Vuelta ez galtzeko arrazoia segundo horiek bailiran bezala...

5 Fabio Jakobsen. Nota hobea merezi zuen. Hiru etapa garaipen eta erregulartasunaren maillot berdea. Senechal taldekidearekin eduki zuen jarrera txarra izan zen, eta mundu guztiak ikusi du. Bere kirol zuzendari Patrick Lefevrek esan du, publikoki: nondik datorren eta nora iritsi den baloratu behar du.

4 Talde gonbidatuak. Zaila nota hori justifikatzea, askok eskatzen joko baitute. Kontua da itzuli handietan oso agerikoa dela World Tour mailakoen, eta maila horretan ez dauden taldeen arteko aldea. Euskalte-Euskadik, Caja Ruralek eta Burgs BH-k presentzia handia eman diote lasterketari euren ihesaldiekin, baina garaipena lortzetik urrun egon dira, Bizkarraren kasuan izan ezik, pasa den larunbatean. Ahalegintzen direlako, gure eskertza merezi dute.

3 Angel Madrazo. Izen ona du tropelean, beti txantxak egiten eta beste, baina lasterketan egin dituen keinu batzuk soberan daude. Jumboko Sam Oomenekin ahari borrokan aritzea lasterketa betean, Jumbok ihesaldiari ihes egiten utzi nahi ziolako. Horrelakoak

ezin dira egin kameren aurrean, bere eta taldearen etxe kalte. Bakoitzak nahi edo ahal duen lasterketa egiten du, eta beste guztiei hori onartzea beste erremediorik ez zaie geratzen.

2 Mikel Landa. Landismoarekin erruki... Burgosko Itzulia irabazi zuen eta bere parrokia berotu egin zen ikaragarri. Landak berak ere helburua podium-ean edo gertu egotea izan behar zela adierazi zuen Vuelteren atarian... Eta ez da batere ibili. Lehen asteko mendietan komeriak, bigarrenean ezina latza, eta azkenean etxera, eta itsusi. Itsusi, zentzurik gabeko kilometroko eraso efektista egin ondoren jaitsi zelako bizikletatik, bere taldea Haig-en mesedean lana ikaragarri egiten ari zenean. Landa zaleak eta landismoak bizirik jarraituko dute luze, haien fedea, kemena, sinesmena hautsezina delako, baina denbora aurrera doa. Abenduan 32 urte beteko ditu.

1 Vueltako antolakuntzari. Ez ibilbideagatik, nahiko polita izan baita. Batez ere lehen eta hirugarren astean. Baina abuztu betean Andaluzia eta Extremadura aldean hainbeste egun egitea... Jendea txikituta iritsi da azken astera, egunari egun 38-40 graduko tenperaturak jasaten. Halakorik ez errepikatzeke ahalegina egin behar-ko litzateke etorkizunean.

0 Nola ez, Miguel Angel Lopez: Ulerrezina, bere erabakia. Ume txiki baten jarrera. Atzean geratu eta podiuma galdu zuelako haserretu, eta lasterketa utzi, nagusiko 5. edo 6. postua txarra balitz bezala. Badu zer-bait mutil horrek buruan, eta oso markatuta geratuko da etorkizunari begira, taldekideei errespetu falta itzela egin die-lako. Movistar-ek zer egingo duen ikuskizun, ez baita kirol irizpide soilean oinarritu beharreko erabakia. Interes komertzial asko Kolonbian, eta Lopez taldetik botatzeak min handia egin diezaioke taldeari.



Lehen taldea, aurreko asteburuan ateratako argazkian. EUSKALDUNA

Euskaldunako lehen taldeak asteburuan ekingo dio ligari

FUTBOLA Urnietarrak txapel berria jantzi zuen Aizarnan, igandean jokatu zen Gipuzkoako Segi Sail txapelketan


Erredakzioa ANDOAIN

Euskaldunako lehen taldea Gizeonezkoen Erregional Ohorezko Mailan ariko da, denboraldi honetan. Eta lehen aurkaria Oiartzun taldea izango da, euren

zelaian gainera. Gipuzkoako beste maila guztietan txapelketa irailaren 19an abiatuko da. Lehiari ekin aurretik, Ubitarten Larramendi txapelketaren edizio berria jokatu zen.

Larramendi txapelketa

Aurre denboraldian tradizio handiko txapelketa antolatu ohi du Euskaldunak, Larramendi txapelketa izenekoa. Aurtengoan Real Union nagusitu da. Finalean Real Unione (1-0) irabazi zuen Oiartzun taldea eta 3-4. postuetarako Beti Kozkor taldeak Euskalduna garaitu zuen (1-0). Futbol txapelketa izateaz gain, partiden artean Euskaldunak klubeko bi kide omentzeko aukera baliatu zuen.



Real Union, txapelduna. EUSKALDUNA



Agustin Dominguez Marquez.



Pedro Martinez Garcia.



Henriksen eta Gabirondo, Gipuzkoako txapelketan, Zizurkilen. AIURRI

Gabirondo irabazle eta Henriksen hirugarren

SEGA Urnietarrak txapel berria jantzi zuen Aizarnan, igandean jokatu zen Gipuzkoako Segga Sail txapelketan

Erredakzioa ANDOAIN

Denboraldi bikaina osatzen ari da Julen Gabirondo urnietarra, lehiatzen duen txapelketa eta desafio guztietan garaile iritelen ari baita. Honezkero komeriak edukiko ditu azken aldian eskuratzen ari den txapel guztiak etxean gordetzeko. Azkenekoa Aizarnan jantzi du, igandean jokatu zen Gipuzkoako Segga Sail txapelketan.

Segga munduari berrikuntzak eta erakargarritasuna ezarri nahian sortutako txapelketa da Segga Sail izenekoa; azkartasuna eta txukuntasuna neurtzen ditu

**TXAPELKETA BEREAN
MALOU HENRIKSEN
ANDOAINDARRA
HIRUGARREN
SAILKATU ZEN**

txapelketa berri honek, eta belarra pisatu beharrik ez dago. Gizonezkoek 1.000 karratuko belar saila ebaki behar izan zuten. Sailkapena:


1. Julen Gabirondo (35:09).
2. Mikel Lizartza (38:40).
3. Iñigo Merkader (38:45).
4. Jon Otegi (43:12).

Emakumezkoek 400 metro karratuko saila ebakitzeko egokitu zitzaizkien, eta Henriksen andoaindarra hirugarren geratu zen. Sailkapena:

1. Alaitz Imaz (23:31).
2. Ainara Otamendi (27:07).
3. Malou Henriksen (28:10).

Pentatloia

Gabirondoren hurrengo hitzordua Azpeitiako zezen plazan da, larunbat honetan bertan. Gauzak ondo, irailaren 25ean jokatu den finalerako sailkatuko litza-teke urnietarra.



Imanol Ansa. UTS

Buruz buruko finalaren ateetan geratu da Ansa

ERREMONTEA Argi dago datozen urteetan zeresana emango duen pilotaria izango dela urnietarra

Erredakzioa URNIETA

Barrenetxeak Urrizaren aurka jokatu du Kutxabank Sari Nagusiko buruz buruko partida, Ansa urnietarrari irabazi ostean. Irailaren 11n jokatu da partida handia. Barrenetxeak esperientzia eta sakea baliatu zuen Ansa menderatzeko (23:30); urnietarra urduri zegoen eta jokoan argi ikusi zen. Hasieratik aurkaria menderatu ezinik ibili zen Ansa eta hernaniarrak buru askorekin jokatu 11 tantoko aldea eskuratzera iritsi zen. Nabarmendu beharra dago, Ansa bere jokoa erakutsi ez zuen arren, gogor saiatu eta markagailua txukuntzen hasi zela.



ZUMEATARRA

Aitor Muruaren podiuma

TRIATLOIA Fromistako triatloian Zumeatarra taldeko Aitor Murua beteren mailako V2 mailako lehena izan zen. Zumaia Sprint triatloian, aldiz, ordezkari zabala joan zen Andoaindik. Javier Duque, Mikel Arteaga, Iñigo Duarte, Ibai Guzman eta Nagore Arizaga aritu ziren.



ZUMEATARRA

**Mendi Tour zikloa
Urnietara iritsiko da,
irailaren 23an**

Mendi Film zinemaldi ezagunaren azken edizioako pelikula onenak, Saroben ikusgai.

**Buruntzaldea IKT
igeriketa taldea
martxan jarri da**

Eskola eta federatu mailako kideek irailaren 14an ekingo diote denboraldi berriari.



andoaINDARRA
euskaraz



Bezzeroaren astea
Erosi
Andoainen
2 eta 5€ko sariak



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 9

ANDOAIN Lehiaketa

XXV. Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa.
10-17 urte bitartekoentzat.
Informazioa: Bastero.eus.
Lanak aurkezteko epea: Urriak 8.

URNIETA Udal zerbitzuak

Errefusaren edukiontzia asteazkenetan
eta igandetan bakarrik erabiliko da.
Merkataritza eta ostalaritzaren kasuan,
larunbatetan ere bai.
Irailean hasita.

URNIETA Bertsolaritza

Helduei zuzendutako bertso eskolaren
aurkezpena. Info: 669 068 388.
18:30, Sarobe.

OSTIRALA 10

URNIETA Odol-emaileak

Bolondresak txanda hartzeko
telefonoz deitu behar dute:
943 00 78 85.
16:30, Lekaio.

ANDOAIN Kontzertua

Grises eta Bulego taldeak zuzenean
ariko dira, uda osora zabaldu den
"Kale Giroan" egitarauaren baitan.
19:30 / 21:30, Goikoplaza.



Andoaingo Gudua, 2017. urteko edizioan. AIURRI

ANDOAIN "Ahaztuak emakumeak. Bertan ziren eta bertan dira"

Andoaingo Gudua eta emakumeak ardatz hartutako erakusketa.
Irailaren 10etik 25era Bastero Kulturguneko erakusketa gelan.
Bisitaldi gidatuak: Irailak 10 (euskaraz), irailak 18 (bi hizkuntzatan).
Bisitaldi gidatuetaarako 943 30 35 40 telefonora deitu behar da.

LARUNBATA 11

URNIETA Irteera Muniskoegañaria

Informazioa, 15. orrialdean.
10:00, Besabi.

IGANDEA 12

ANDOAIN Antzerkia

"Mesede bat egitearren".
19:00, Goikoplaza.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

**¡A todo tren!
Destino Asturias**
Lar., 11. 19:30.
Ig., 12. 17:00, 19:30.
Astel., 13. 19:30,
22:00.

Descarriados

Lar., 18. 19:30,
22:00.
Ig., 19. 19:30.
Astel., 20. 19:30,
22:00.
**Space Jam:
Nuevas leyendas**
Lar., 18. 17:00.



SINOPSISIA



A todo tren. Destino Asturias

Zuzendaria: Santiago Segura. **Aktoreak:** Santiago Segura, Leo Harlem, Florentino Fernandez, Joaquín Reyes, David Guapo, Sirena Eneko Otero, Paz Vega, Itziar Castro. **Herrialdea:** Espainia (2021). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 88 min.

Familia osoari begira egindako filma

Ricardo aita arduratsua da, eta semea udalekuetara lagunduko du. Asturiasko kanpamentu batera gaueko trenean eramatea erabakitzen duenean, guraso batzuk bere semeak eramatea

proposatzen diote Ricardori. Ezustean, azken minutuan, Felipek lagunduko dio. Bi haurren aitona da, tipo bitxi eta arduragabea. Santiago Seguraren azken filma da.

SINOPSISIA



Descarriados

Zuzendaria: Fernando Garcia-Ruiz. **Aktoreak:** Julian Lopez, Arturo Valls, Ernesto Sevilla, Dafne Fernandez, Ana Milan. **Herrialdea:** Espainia. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 98 minutu.

Gazte garaiko bidaiaren segida

2000. urtean, Pepo, Roge, Costa eta Juan Luisek Interrail ametssetako bidaiari ekin zioten.

Baina lehen geldialdian abentura modu malkartsuan amaitu zen. 20 urtera berriro elkartu dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



HEOL
TOLOSA
Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

MATRIKULA OFIZIALA 2021-2022

Frantsesa A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2
Ingelesa A1 - A2 - B1 - B2.1* - B2.2* - C1*

• Ikastaro erdipresentzialak ere.

Matrikula eskaera egiteko epea:
Irailaren 1etik 17ra (1. fasea)

Gutxieneko adina:
Frantsesa: 14 urte 2021ean betetzea
Ingelesa: 16 urte 2021ean betetzea

Prezioa:
72,36€

www.eoitolosaeo.hezkuntza.net
info@eoitolosaeo.net - 943 69 75 60



Ostalaritza sustatzeko bonoak eskainiko dituzte Andoainen

Erredakzioa ANDOAIN

Abiatzear da Urnietako helduen bertso eskola

Erredakzioa URNIETA
Ostegun honetan (irailak 9) izan-
go dute lehen hitzordua, 18:30ean
hasita. Deialdia, ezin bestela,
bertso bidez egin dute:
Errima eta doinu
Zalea bazara
Gozatzeko aukera
Urnietan bada
Ostegunez Saroben
Elkartzen baikara
Sei t'erdietan hasi
Eta zortzietara
Zatoz, anima zaitez
Bertso eskolara!

Informazio gehiago
Telefonoa: 669 06 83 88.

Urnietako gazteen intereseko guneak, zabalik

Erredakzioa URNIETA

Gaztelekuaren ohiko irekiera irailaren 15ean izango da. Ikas-turte honetan honako ordutegiarekin:

- Astelehena eta asteartea: 17:00-18:00 (LH6) eta 18:00-19:30 (DBH).
- Asteazkena eta osteguna: 17:00-18:00 (LH6) eta 18:00-20:00 (DBH).
- Ostirala: 17:00-19:00 (DBH1, DBH2) eta 19:00-21:00 (DBH3 eta DBH4).

Gazte Informazio Puntua
Zabalik dago ere. Ordutegia:

- Astelehenetik ostegunera: 17:00-19:00.
- Ostirala: 11:00-14:00.

ZORION AGURRAK



Urnietako Peña Gorostidi elkartearen urteko batzarra



Ikasi euskara, bidelagun onenarekin



Ikas Erakunde Urtetuetatik eta Kika Palma Hoster
AEEK-ko irakasleak eta ikasleak

EUSKARA-IKASTAROAK

Urnietako AEKn (2021/2022)

MATRIKULAZIOA ZABALIK! Irailaren 1etik 30era arte.

- Maila guztiak
- Aurrez aurreko eskolak
- Autoikaskuntza

Matrikulazioa eta informazioa:
Urnietako AEK (Errekalde kalea 1)
662 338 747 · urnieta@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

URNIETAKO UDALA: matrikulazioa %100 (zango da), gobernez, langabetsentzat eta %85, gobernez, lanaren arri direnentzat.

 Aurrez aurreko eskolak Clases presenciales	 Mintzapraktika	 Barnetegiak
 Autoikaskuntza Autoaprendizaje	 Online	 izul! aldizkaria
 Normalizazio-planak Planes de normalización	 Itzulpenak-Zuzenketak Traducciones-Correcciones	

"Energia polita sortzen da yogako klasean gaudenean"

EVA DOMENECH YOGA IRAKASLEA

Ate irekiera jardunaldiak antolatu zituzten, Saroben

Jon Ander Ubeda URNIETA

Yoga irakasle ariko zara ikasturte berrian. Zergatik da berezia ate irekiera jardunaldia egitea?

Jarduera hau jendeari gerturatzeko beharrezkoa da. Yoga ezaguna da, baina oraindik bada jendea bere horretan yoga zer den ez dakiena. Ezaguna zaio, baina garrantzitsuena praktikatzea da. Zeren eta yoga batez ere praktika bat da. Ez da hitz egiteko, badu filosofia bat baina esperientzia modura bizi behar da yoga.

Zeini zuzenduta dago yoga?

Adinak eta esperientziak ez dute axola. Praktika jendeari egokitzten dugu eta partaide bakoitzak bere erritmoa jarraitzen du. Asana edo postura ugari daude, sinpleenetik hasi eta konplexuagoraino. Bakoitzak bere aldaera egokia topatu behar du.

Ikasturtean zehar saio bakoitzaren iraupena zenbatekoa izango da?

Astean bitan, eta ordu eta erdiz ariko gara.

Zenbat urte daramazu Urnietan eskolak ematen?

Laugarren ikasturteari ekingo diot.

Talde finkoa duzu?

Ikasle asko fidel samarrak dira. Urtero jende berria gehitzen da, baina oinarrian talde egonkorra dugu.

Pandemia garai honetan ikasleekin berriko aurkitzeko aukera izatea gauza handia da zuentzat, ezta?

Oso inportantea da aurrez aurre elkarrekin egotea, taldearen indarra hor dagoelako.



Eva Domenech. AIURRI

Ez dugu hainbeste hitz egiten yogan ari garenean, baina energia polita sortzen da klasean gaudenean.

Irakasle modura nola sentitzen zara.

Une atsegina igarotzeko baldintzak sortzen dituen irakaslea naiz. Espazioa, musika, jarrera... horretarako lagungarria da. Ikaslea babestuta sentitzea da helburua. Fiantzia giroa sortzea dut gogoko, bakoitza bere buruarekin eroso sentitu dadin. Gorputza, adimena eta arnaske- ta ona bermatzeko giro aproposa sortu behar da.

Kataluniarra zara baina euskaraz bikain ari zara.

Hamabost urte dira hona etorri nintzela. Hernanin bizi naiz, eta lehen urte haietan euskarari serio heldu nion. Lehen profila atera nuen, eta bigarrenaren bila noa.

"Pilates jardueran ikasle bakoitza bere erritmora joan daiteke"

IBON LLANO PILATES IRAKASLEA

Ate irekiera jardunaldiak antolatu zituzten, Saroben

Jon Ander Ubeda URNIETA

Pilates kirol jarduera ezaguna da, baina ikasle berri bati nola azalduko zenioke zer den?

Entrenamendu metodoa da, eta oinarri abdominalak lantzean datza, baina ondorioz beste gorputz atal guztiak lantzen dira: burua, besoa, lepoa, hankak... flexibilitatea, tonifikazioa eta arnasketaren kontrola lortzen dira horrela. Azken hori garrantzitsua da.

Bai, izan ere bada arnasketa on bat garatzeko zailtasunak dituenik.

Hasiberrien kasuan, mugimenduaren arabera, normala da nahastea. Baina begiralearen arabera modu ezberdinak topatzen dira arnasketa erregularrarekin ohitzen.

Norbaitek pentsa dezake zaila edo nekagarria dela. Zer esango zenioke Pilatesen ezagutza ez duenari?

Edozein jardueretan bezala, hona etorriko denak bere borondatez erabaki du hona etortzea. Eta norberak bere helburuak zehazten ditu. Hasieran kosta egingo zaio akaso, baina gero maiztasunez etortzean ohitzen joango da eta baita gozatzen ere. Nik ikasleei ez dizkiet helburuak zehazten. Ikasleren batek irudi bat izango du buruan. Helburua ez da sekulako flexibilitatea lortzea, ikasle bakoitzak bere mugak dituelako. Gudan etortzen den jendearen perfila oso ezberdina delako. Batzuk medikuak gomendatuta datoz, lunbareta arazoak dituztenak adibidez. Horiek ari- keta guztiak ezin dituzte behar



Ibon Llano. AIURRI

bezala egin. Nire aholkua hona- koa da: Proba ezazue, baina gorputza mugara eman gabe. Hori da Pilatesek duen gauza ona. Bakoitza bere erritmora joan daitekeela.

Urte batzuk egin dituzu Urnietan.

Oker ez banago, pandemia tartean izan delako, uste dut hauxe dela Urnietan ariko naizen zazpigarren urtea. Donostiara naiz, eta Urnietan eta Hernanin nabil eskolak ematen. Urte hauetan hainbat ikasle fidel pilatu ditugu. Pentsa, astearteko eta osteguneko taldea ni hasi aurretik daude bertan. Lanetik atera eta etxera joan aurretik duten ordu libre hori baliatzera hurbiltzen dira asko.

Dantzan zebiltzan ikasle batzuk ere hona etortzen ziren jarraian. Pilatesen zuzenean edo zeharka estiramenduak egiten direnez, muskulazioa askatzeko ondo etortzen zaie.

Udal ikastaroetan izena emateko garaia heldu da

Sarobeko eta Kiroldegiko ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago, hilaren 17ra arte

Erredakzioa URNIETA

Yoga, pilates eta gazte funky ikasteko aukera dago Saroben. Urriaren 4an abiatuko da ikasturtea, baina izen-ematea irailaren 17an amaituko da. Udalak adierazi duenez, "Urnietan errol- datutakoek lehentasuna izango dute. Halaber, hobariak eskainiko dira Urnietan errolaturiko familia ugariantzat. Baita, 18 urtetik azpikoentzat, 65 urtetik gorakoentzat, ikasleentzat, langabetuentzat eta gazte txartela dutenentzat ere". Indarrean dagoen protokoloa beteko da, instalakuntza guztietan bezalaxe.

Udal kiroldegiko eskaintza

Spinninga, tonifikazioa, zumba edo fitness aholkularitza eskaintza indarrean izango da ikasturte honetan. Adinekoegi begira ere, eskaintza berezia egingo dute. Irailaren 27an hasiko da ikasturtea eta interesa dutenak irailaren 17a baino lehen eman behar dute izena.

Izena emateko aukerak

Sarobe:

943 00 80 42.

sarobeharrera@urnieta.eus.

Udal Kiroldegia:

943 00 83 28.

kirol@urnieta.eus.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebhez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ate batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goieta Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Urnietako
udala



AEKko kideek aurreko astean egin zuten ikasturte berriaren aurkezpena. AIURRI

AEK n ikasteko aukera eskura dago Andoainen

Eskaintza zabala aurkeztu dute 2021-2022 ikasturterako. Goizez nahiz arratsaldez informazioa eskaintzen ari dira Plazaola kalean duten egoitzan. Andoaingo Udalak matrikularen %85a diruz laguntzen du

Erredakzioa ANDOAIN

Irailarekin batera abian jarri dute Andoaingo AEK euskaltegiko matrikulazio kanpaina. Gero eta gehiago dira euskara ikastearen hautua egiten dutenak, eta hala izaten jarraitzea nahi dute. AEKren esanetan, irakasleak bidelagun onenak dira, ahalegin handia egiten baitute ikaslearen beharretara

egokitzeke. Horren isla da urtero izan ohi duten eskaintza zabala, bai aurrez-aurreko klaseetan eta baita autoikas-kuntzan ere. Aurten ere aukera zabala dute eta ikasturte berria gogo onez hasteko nahia azaldu dute.

Euskara ikasteko erraztasunak emate aldera, ezin aipatu gabe utzi dirulaguntzak. Matrikularen

%85aren ordainketa bere gain hartzen du Andoaingo Udalak.

Informazio gehiago

- andoain@aek.eus.
- 943 59 17 04.
- 688 74 66 43.

Andoaingo AEK-ko bulegoaren ordutegia honakoa izango da: 09:30-13:00/ 16:30-19:30.



PROPOSAMENA

GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA GIPUZKOA

"Mulisko gaña"ra irteera, larunbat honetan

Gutxi dira Gipuzkoan Muniskuegaña (Mulisko gaña) bezain toki kitzikagarriak. Lehenik eta behin, kokapenarengatik eta handik dagoen ikusmirarengatik; izan ere, besteak beste, behinola Urumeako Zilegimendiak izan zirenen zati handia bertatik bertara ikusten da handik, gertu-gertu, esku-eskura. Hango mendiak, basoak, larretokiak, errekek..., a zer nolako ikusizuna!

Bigarrenik, Muniskuegañan dagoen multzo megalitikoarengatik: zutarri bikaina, zista bikoitz paregabea, hiru cromlech, zein baino zein dotoreagoak... Leku gutxitan dago horrelako arkeologia ondarea hain eremu txikian. Gainera, azken urteetan Hernani eta Urnietako udalek egindako ahaleginari esker, oso zaindua dago multzo guztia. Alde horretatik, atentzioa ematen du, zorionerako eman ere.

Haraino iristeko bidea ere ez da hutsala. Paisaia zoragarriaz gainera (itsasoa eta Beterriko zati handia ikusten da hainbat puntutatik), bidean zuhaitz lepatuekin, saroiekin, betizuekin eta beste hainbat altxorrekina goza daiteke.

PARTE HARTZAILEAK URNIETAKO BESABITIK ABIATUKO DIRA, GOIZEKO 10:00TAN HASITA

Eta, jakina, ezin ahanzi bide erdian dagoen Pozontarriko lepua izeneko dolmena. Aztar-na horiek guztiak behinola Urumeako zilegimendiek abeltzaintzarren eta basolangintzaren arloan zuten garrantziaz mintzo dira. Nornahiri hautatzen zaizkio begiak horretaz guztiaz.

Hori guztia gutxi balitz, Muniskuegañaraino iristeko bidea erraza eta egokia da, edonork egiteko modukoa. Alde horretatik ez dago aitzakiarik.

Aukera ederra eskaintzen du, beraz, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak, irailaren 11n, larunbatez, goiz-pasa polita egiteko.

Abiapuntua Urnietako Besadegi (Besabi) paraje ezaguna da eta hitzordua goizeko 10:00etan hasita. Irteera eguerdiko 14:00etan amaituko da puntu berean. Jarduerak 5 euroko prezioa du eta izena ematea ezinbestekoa da.

Informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko:

- 943 49 50 69 / 688 89 50 68
- arditurri@gipuzkoanatura.eus
- www.gipuzkoanatura.eus

EZINBESTEAN IZENA EMAN BEHARRA DAGO GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAN

Sarrera zenbakitua Sarobe arte eszenikoen gunean

Sarrerak banatzeko sistema berria ezarri zuten Urnietako kulturgunean, astearte arratsaldeko saioan

Erredakzioa URNIETA

Aurrerantzean, ikuskizunaz gozatzeko garaian, sarrera zenbakitua eskainiko dute Sarobe arte eszenikoen gunean. Horixe izan zen astearte arratsaldeko aurre estreinaldiko berrikuntza nagusi.

Gainerakoan, "Entre copas" antzezlanak ikusmina piztu zuen urnietarren artean. Izan ere, sarrerak agortuta ekin zioten aurre estreinaldiari. Juanjo Artero, Patxi Freytez, Ana Villa eta Miriam Cabeza igo ziren taula

gainera. Aurreko egunetan gogor entseatu eta gero, jendaurreko lehen saioa egin zuten Urnietan. Aktoreak Garbi Losada antzerki zuzendariaren esanetara aritu ziren. Losadaren muntaia ugari Urnietan aurkeztu izan dira. "Entre copas" antzezlanak euskarazko bertsioa izango du, "Kopa artean" izenekoa. Urriaren 9an egingo dute aurre estreinaldia. Aktore laneran ariko direnak Ainhoa Aierbe, Asier Hormaza, Asier Sota eta Ainara Ortega euskal aktoreak izango dira.



Sarobeko atarian, astearte arratsaldean. AIURRI

AHAZTUAK EMAKUMEAK BERTAN ZIREN ETA BERTAN ARI DIRA

ERAKUSKETA 2 0 2 1

ANDOAINGO GUDUA

1837/09/14



Ondarearen Europako Jardunaldiak
Jornadas Europeas del Patrimonio

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru
Aldundia



ORAIN
GIPUZKOA

Irailaren 10etik 25era bitartean
Bastero Kulturguneko erakusketa aretoan

Babesle:

Antolatzaile:

Sarrera doan
Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 18:30 - 20:00

Larunbatetan: 10:30 - 13:30 / 18:00 - 20:30

Bisita gidatuak

Izena emateko: 943 303 540 - basteroataria@andoain.eus



ANDOAINGO UDALA
Hezkuntza eta Kultura
Batzordea



MANUEL
LARAMENDI
KULTUR
BAZARRA